BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, SWITCH-CORE ZENTRALEKO SOLUZIO BERRIA EROSTEKO, BESTE SARE SWITCH BATZUK EROSTEKO ETA EXTREME NETWORKS FABRIKATZAILEAREN SAREAREN ELEKTRONIKA MANTENTZEKO

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza teknikoen plegu honen xedea da sareko core berri bat erostea gaur egun dagoen S4 modeloa ordezteko. Proiektuaren barruan egongo da soluzio berria instalatzea eta konfiguratzea. Soluzio modularizatu bat izan beharko du, barne hartuko ditu fabrikatzailearen lizentziak eta, halaber, Irungo Udalean dagoeneko instalatuta dauden Extreme Networks fabrikatzailearen sareko elektronika-azpiegiturak mantentzeko zerbitzu bat.

Ekipamendu horren mende dauden ekipo-, kokapen- eta erabiltzaile-kopurua dela eta, beharrezkoa da irizpide batzuk ezartzea, mantentze-lanak arindu eta arautzeko eta azpiegituraren alderdi prebentiboak, zuzentzaileak eta ebolutiboak estaltzeko, udal eraikin eta bulegoen funtzionamendu egokia oztopatzen duten gorabeherak saiheste aldera.

Halaber, honako proiektu hauek sartuko dira kontratazio honetan:

- zuntz bidezko switch-core berriaren eta udalak daukan prestasun handiko PA-850 modeloko Palo Alto suebakien soluzioaren arteko konexioa.
- 10 GBko sarea hedatzea kameretarako, switch-core zentralarekin konektatzeko, stack-pila bat sortzea eta sare horren konfigurazioa eta segurtasuna barne.
- Ekipo zaharrak ordezteko honako switch hauek erostea:
    - 4 switch, Extreme Networks 5320 48 modelokoak, PoE+ ahodunak, 10 GBko uplink lizentzia barne.
    - switch 1, Extreme Networks 5320 24 modelokoak, PoE+ ahodunak, 10 GBko uplink lizentzia barne.
- Gainera, Irungo Udalak switch batzuk erosiko ditu, gero sor daitezkeen beharrei erantzuteko. Zehazki, honako hauek sartuko dira aurrekontuan:
    - 2 switch, Extreme Networks X440-G2 24P 10GE4 modelokoak, Emakumeen Etxerako.
    - 3 switch, Extreme Networks X440-G2 48P 10GE4 modelokoak, CBA kultur gunea zabaltzeko.
    - Switch 1, Extreme Networks X440-G2 12P 10GE4 modelokoa.

Mantentze-kontratuaren hasieran, enpresa esleipendunak plataforma osoa kudeatzeko softwarea eguneratuko du, Extreme Networks fabrikatzaileak gomendatutako azken bertsiora egokituz. Irungo Udalean ezarritakoa baino fabrikatzailearen kudeaketa-kontsola eguneratuago bat jartzea gomendatzen bada, enpresa esleipendunak egin beharko du. Era berean, udal-sareko switch guztiak aztertuko ditu, ekipoen firmwarea fabrikatzaileak gomendatutako azken bertsiora eguneratuz.

2.- ENPRESAK BETE BEHARREKO BETEKIZUNAK

2.1 Ziurtapenak

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador Balioztapen kodea/Código de verificación: RE8V-VE0H-5T1A-NSBA
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica Eusebio Hernández Rodríguez TÉCNICO DE SISTEMAS (24/11/2022 12:15 CET)

Enpresa esleipendunak nahitaez izan beharko du Extreme Networks fabrikatzailearen partner bat, mantentze-lanak behar bezala egingo direla bermatzeko, behar diren ordezko piezak ahal bezain laster eskuratu ahal izanez. Fabrikatzailearen ziurtagiri edo gutun baten bidez egiaztatuko da, enpresak daukan euskarri- eta ziurtapen-maila akreditatuz.

Gainera, enpresa esleipendunak gutxienez 2 teknikari eduki beharko ditu plantillan, Extreme Networks fabrikatzailearen ziurtagiriren bat dutenak eta gutxienez urtebeteko esperientzia dutenak antzeko mantentze-proiektuetan.

Fabrikatzaileak bere prestakuntza-programa ofizialei buruz emandako ziurtagiriak bakarrik hartuko dira kontuan.

Zerbitzu hori egiteko izendatzen den teknikarietako batek baja hartzen badu kontratua indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak esperientzia eta ziurtagiri berdinak dituen beste teknikari bat izendatu beharko du, hamabost egunean gehienez ere.

2.2 Enpresa esleipendunaren instalazioak

Enpresa lizitatzaileek eman beharreko zerbitzua emateko beharrezkoa(k) d(ir)en lokala(k) edukitzeko konpromisoa hartu beharko du. Eta lokalak/ek eta ekipamenduek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte zerbitzuak behar bezala funtziona dezan.

Enpresa esleipendunaren lokala(k) **Irungo udaletxetik 150 kilometrora egon ahalko d(ir)a gehienez**, teknikariak bertaratzeko denbora firewallen funtzionamendua bermatzeko egokia izan dadin, firewallak ekipamendu kritikoa baitira antolakundearentzat, eta horrela, ahal dela, zerbitzua erortzen bada erortze hori luze izan ez dadin.

3.- LANEN IRISMENA

3.1 Switch-core modularraren soluzio berria erostea, instalatzea eta konfiguratzea

3.1.1 Switch-core soluzio berriaren ekipamendua.

2013az geroztik, Irungo Udalak udal-sareko switch-core zentral bat ezarrita dauka: Extreme Networks S4 fabrikatzailearen switch-router bat, honako osagaiak dituena:

- S4-CHASSIS
- 2 S-AC-PS
- 2 ST8206-0848-F8
- 3 SOG2201-0112

Fabrikatzailearen EOSean dagoen Extreme Networks S4 switch-corea ordezteko, Irungo Udalak Extreme Networks fabrikatzailearen switch-soluzio modular bat eskuratuko du, honako switch hauek izango dituena:

- 2 switch, *X690* modelokoak, 48 atakakoak eta honako osagai hauek edukiko dituztenak:

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Part Number	Deskribapena	Fabrikatzailea	Kopurua
17360	X690-48t-2q-4c	Extreme Networks	2
97004-17360	EW NBD AHR 17360	Extreme Networks	6
17115	X870 Fan Module, Front-to-Back airflow .	Extreme Networks	12
10960	770W AC power supply, Front-to-Back airflow	Extreme Networks	4
10033	Pwr Cord,10A,CEE 7/7,IEC320-C13	Extreme Networks	4
10411	100Gb, QSFP28-QSFP28 Direct attach passive copper kablea, 1m	Extreme Networks	4

- 2 switch, X695 modelokoak, 48 atakakoak eta honako osagai hauek edukiko dituztenak:

Part Number	Deskribapena	Fabrikatzailea	Kopurua
X695-48Y-8C	X695-48Y-8C System	Extreme Networks	2
97004-X695-48Y-8C	EW NBD AHR X695-48Y-8C	Extreme Networks	6
XN-FAN-001-F	Front to Back Fan	Extreme Networks	12
XN-ACPWR-750W-F	750W AC PSU Front to Back airflow	Extreme Networks	4
10033	Pwr Cord,10A,CEE 7/7,IEC320-C13	Extreme Networks	4
10302	10 Gigabit Ethernet SFP+ module, 1310nm, SMF 10km link, LC connector	Extreme Networks	4

Ekipamenduaz gainera, honako lizentzia hauek eta Extreme Networks fabrikatzailearen NACari lotutako hardwarea:

Part Number	Deskribapena
XIQ-NAC-S-1K-EW	ExtremeNAC SW subscription for 1000 end-systems for 1 Year ExtremeWorks [Term: 3 years]
XIQ-PIL-S-C-EW	ExtremeCloud IQ Pilot SaaS Subscription and EW SaaS Support for one (1) device (1 year) [Term: 3 years]

Lizitazioan sartzen da udal-sarearen egungo switch-core zentrala berriz erostea; Extreme Networks S4 fabrikatzailearen switch-router bat da, honako osagai hauek dauzkana:

- S4-CHASSIS
- 2 S-AC-PS
- 2 ST8206-0848-F8
- 3 SOG2201-0112

Eskaintza egin behar dutenean, lizitatzaileek switch-core horren balioa deskontatu beharko dute preziotik.
Enpresa esleipendunak desmuntatu eta eramango du ekipo hori.

3.1.2 Switch-corea instalatzeko zerbitzuaren baldintzak

Aldez aurretik, switch-core S4 soluzioan gaur egun dagoen konfigurazio guztia eta eraikinetako pilak aztertuko dira Irungo Udaleko teknikariekin batera, dauden konfigurazioak, definitutako VLANak eta switchetara konektatutako gailuak aztertuz.

Azterketa horretan oinarrituta, erabiltzen ez diren eta egungo soluzioa hobetzen duten funtzionalitateak abian jartzeko iradokizunak edo hobekuntzak planteatuko dira. Core-switchen soluzio berria abian jartzeko hasierako lanek gutxienez alderdi hauek izan behar dituzte:

- Fabrikatzaileak gomendatzen duen azken firmware bertsioko ekipoak instalatzea.
- Egungo soluzioaren konfigurazio eta arau guztiak aztertzea eta balizko hobekuntzak planteatzea.
- Switch-core S4an dagoen konfigurazio guztia soluzio berrira migratzea.
- Soluzioaren funtzionamendu egokia egiaztatzeko lanak egitea Irungo Udaleko teknikariekin batera.
- Egindako konfigurazio-lanei buruzko ezaupideak helaraztea udal-teknikariei.
- Dokumentazio xehatua entregatzea egindako lan eta konfigurazio guztiei buruz, instalazio-proiektuaren amaierari buruz eta zerbitzua abian jartzeari buruz.
- Aurrekontuan jasotako NACa konfiguratu eta abian jartzea, behar bezala funtziona dezan beharrezko politikak eratuz, sarera konekta daitezkeen dispositiboak eta sareko erabiltzaileek eta gailuek sarean erabil ditzaketen baliabideak kontrolatzeko. Zehazki:

    - Egungo azpiegitura aztertzea, aurrekontuan sartutako NACarekin bateragarria dela egiaztatuz, swuitchak, Firewalak, APak eta kautotzen duen beste edozein gailu barne.
    - 802.1 x protokoloan egon daitezkeen bateraezintasunak aurkitu eta konpontzeko ekipo kautotzaileak aztertzea.
    - Dauden zerbitzu-motak definitzea.
    - Gailu-politikak eta -profilak definitzea, eta baita haien euskarri diren VLANak ere.
    - Sentsoreen/beharrezko agenteen konfigurazioa.
    - Gailuen profilen arazketa.
    - Radius zerbitzariaren konfigurazioa kautotzearekin, baimenarekin eta accounting-arekin, 802.1x eta SO gabeko gailuen kautotzea barne, MAB (MAC Authentication Bypass) bidez eutsiz.
    - WEB zentralaren kautotzea konfiguratzea.
    - Gonbidatuentzako eta Sponsor zerbitzuetarako atari bat konfiguratzea.
    - Kable bidezko sarbide segurua (switchak kautotzaile gisa).
    - Wifi bidezko sarbide segurua (APak kautotzaile gisa).
    - Azkenik, probak egingo eta martxa zuri bat egingo dira, erabiltzaile guztiak NACaren politiketara sartzeko.

    NAC proiektuaren burutza enpresa esleipendunaren kontura izango da, eta proiektuaren entregagaiak definituko dira, egindako lan eta konfigurazio guztiak jasota.

    Enpresa esleipendunak ordainduko ditu NAC zabaltzeko proiektuaren ondoriozko joan-etorrien gastuak eta bestelakoak.


Switch-core sarearen soluzio berria konfiguratzeko eta abian jartzeko lan guztiak in situ egingo dira Irungo Udaleko datu-zentroan, hor baitago sareko switch-corea, eta uneoro Informatika departamentuko teknikariek gainbegiratuko dituzte. Migrazio-lanak lanez kanpoko ordutegian

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

(gauekoan) egingo dira, udal-zerbitzuetan ahalik eta eragin txikiena izateko, Irungo Udaleko teknikariek egokitzat jotzen ez dutenean izan ezik.

3.2 Zuntz bidezko switch-core berriaren eta prestasun handiko PA-850 modeloko Palo Alto firewall soluzioaren arteko konexioa

Prestasun handiko PA-850 modeloko Palo Alto fabrikatzailearen firewall soluzioa sareko switch-corearekin konektatzeko modua aldatu nahi da. Gaur egun, kobrez egiten da konexio hori, eta zuntz bidezko 10 GB-ko konexio batera pasatu nahi da. Konexio hori egiteko, beharrezkoak diren zuntzezko konexioak eta MGBIC moduluak hornitu beharko dira. Zehazki, MGBIC moduluek honako ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:



3.3 Extreme Networks fabrikatzailearen sareko 5 switch erostea, konfiguratzea eta instalatzea, eta 10 GB-ko kamera-sare berria segurtatzea

Gaur egun, Extreme Networks fabrikatzailearen sareko 3 switchek osatutako kamera-sare bat dago. Zehazki, switch hauek daude:

- Switch 1, X440-G2 48P 10GE4 modelokoa
- Switch 1, X440-G2 24P 10GE4 modelokoa
- Switch 1, X440-G2 24P 10GE4 modelokoa

3 switch horiek hainbat toki fisikotan daude (Udaltzaingoa, Udaletxea eta Palmera Montero zentro zibikoa), zuntz monomodo bidez konektatuta daude eta oinarrizko konfigurazioa dute switch mailan.

Irungo Udalak sareko 5 switch berri erosi nahi ditu kamera-sarerako. Extreme Networks fabrikatzailearen switchak izango dira, eta dauden 3 switchak ordeztuko dituzte. Sareko elektronika berria modelo hauetako izan beharko du zehazki:

- 4 switch, 5320 modelokoak, 48 GbE PoE ahokoak eta 8 SFP+ ahokoak.

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

- Switch 1, 5320 modelokoa, 24 GbE PoE ahokoak eta 8 SFP+ ahokoak.

Barne sartuko dira zuntzezko SFP moduluak, stack kablea eta swuitchak 10GB SFP+ ahoen bidez elkarren artean konektatzeko beharrezkoak diren kableak.

Honako lan hauek egin behar dira:

- Udaltzaingoan erositako 48 ahoko switch berrietako bi jarri, egun dagoen switcha ordezteko. Stack pila bat osatu beharko da bi switchen artean.
- Gaur egun udalaren datu-zentroan dagoen PoE ez diren 24 ahoko switcharen ordez, 48 ahoko switch berrietako bat jartzea.
- Palmera Montero zentro zibikoan dagoen PoE switcharen ordez, 24 ahoko switch berria jartzea.
- 10 GBko sare bat ezartzea segurtasun-kameretarako. Toki desberdinetan dauden switchak 10 GB-ko udal-sareko switch-core berrira konektatu beharko dira.
- Instalatutako switch berriak konfiguratzeko lanak egiteko, kontuan hartu beharko da sare hori segurtatu egin behar dela eta udal-firewalletan sarbide-arauak ezarri behar direla udal-sarearen kanpotik sare horretara sartzeko.
- Kendu diren 3 switchak jaso eta Informatika departamentuko teknikariei entregatuko zaizkie.

Kontratazioan sartuta daude switchak elkarren artean konektatzeko beharrezkoak diren kable eta konektore guztiak, firewallerako konexioa eta baita fabrikatzaileak 10 GB-ko kamera-sarea muntatzeko ematen duen edozein lizentzia ere.

3.4 Sareko 2 switch erostea, Extreme Networks X440-G2 48P 10GE4 modelokoak, Emakumeen Etxerako.

Aurki, Irungo Udalak Emakumeen Etxea izeneko eraikina gaituko du. Arlotik Informatika departamentura bidalitako informazioan oinarrituta, aurreikusten da ezen, ataken eskaria dela eta, Extreme Networks fabrikatzailearen X440-G2 48P 10GE4 modeloko sareko 2 switch jarri beharko direla espazio horretan. Switch horiek independenteak izango dira eta ez dute pila bat osatuko. Soluzioa hornitzea besterik ez da, eta, beraz, ez da instalatu beharrik izango. Hala ere, switchak sareko corera konektatzeko beharrezkoak diren 4 SFP moduluak sartu beharko dira.

Emakumeen Etxerako ekipamendu-eskaria egiterakoan, Irungo Udalak aukera izango du plegu honetan eskatzen diren switchen behin betiko modeloak aldatzeko. Betiere, eskatzen diren ekipo berriak 3.6 puntuan adierazitako aurrekontuarekin bat etorriko dira.

3.5 Extreme Networks X440-G2 48P 10GE4 modeloko sareko switch bat 1 eta Extreme Networks X440-G2 24P 10GE4 modeloko sareko 2 switch erostea, Emakumeen Etxerako, CBA kultur gunea zabaltzeko.

CBA kultur gunea zabaltzeko lanak bukatutakoan, eta gune horretan jarriko diren ekipoen eta erabilerari buruz arloak Informatika departamentura bidalitako informazioan oinarrituta, Extreme Networks fabrikatzailearen sareko switch 1 erosi beharko da, X440-G2 48P 10GE4

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

modelokoa, eta Extreme Networks X440-G2 24P 10GE4 modeloko sareko 2 switch, gune berria udal-sarera konektatzeko.

Aurreikuspen horren arabera, pila bat instalatu eta konfiguratu beharko da, horietako bi ekiporekin eta beste ekipo *estandalone* batekin. Stackeko 2 switchekin pila egiteko behar den kableatua sartu beharko da, gehi 4 SFP moduluak, pila eta switch independentea udaletxeko datu-zentrora konektatzeko.

Kultur Gunerako ekipamendu-eskaria egiterakoan, Irungo Udalak aukera izango du plegu honetan eskatzen diren switchen behin betiko modeloak aldatzeko. Betiere, eskatzen diren ekipo berriak 3.6 apartatuan zehaztutako aurrekontuarekin bat etorriko dira.

3.6 Sareko switch osagarriak erostea

Beste lekuren baterako switch osagarriren bat erosi behar izanez gero, kontratazioan Extreme Networks fabrikatzailearen X440 modeloko switch-modelo batzuen prezio unitarioak eskatzen dira. Modelo hauen prezioak jakinaraziko dira:

- X440-G2 12P 10GE4
- X440-G2 24T 10GE4
- X440-G2 24P 10GE4
- X440-G2 48T 10GE4
- X440-G2 48P 10GE4
- 1000BASE-LX SFP , Industrial Temp
- 1000BASE-LX SFP , Industrial Temp

Gaur egun, Irungo Udalak X440-G2 12P 10GE4 modeloko switcha behar du, nahiz eta ez den baztertzen premia gehiago sortzea.

OHARRA: 3.1, 3.2, 3.3, 3.4, 3.5 eta 3.6 puntuetan hornitutako ekipamendu guztia No refurbished izan behar du

3.7 Enpresa esleipendunaren mantentze-zerbitzua

3.7.1 Kontratuaren irismena

Lanen irismena Irungo Udalaren sareko Extreme Networks fabrikatzailearen hardware eta software guztia mantentzea da. I. eranskinean aipatzen dira lan horiek, eta II. eranskinean adierazitako lekuetan egin behar dira.

Udaleko Informatika Zerbitzuak gainbegiratuko ditu enpresa esleipendunak egiten dituen zerbitzuak, eta zerbitzu horretatik jasoko ditu egin beharreko lanei buruzko jarraibideak.

Gainera, esleipen-irizpideen barruan, balioetsi egingo da udalaren LAN sarearen zibersegurtasun-auditoria bat egitea kontratuaren bigarren edo hirugarren urtean, gutxienez 5 lanegunekoa, Segurtasuneko Eskema Nazionalari begira (ENS), eta gutxienez alderdi hauek estaliz:

- Switching konfigurazioa berrikustea, topologia, VLANa eta segurtasuna monitorizatzea WEB publikoan.
- Barruko erabiltzaile-sarea berrikustea.
- Aplikazio-ingurunea berrikustea.
- WEB sartze-testa.
- FW politikak berrikustea.
- Negozioak jarraitzeko sistema berrikustea.
- Antibirus-sistema eta NACa berrikustea.
- Phishing kanpainak berrikustea.
- Prestakuntza-plana berrikustea.
- Haririk gabeko sareak eta haien ahuleziak berrikustea: Evil Twins, Rogue AP, konfigurazio okerrak, ICS etab.

Auditoretza horretatik, enpresa esleipendunak dokumentazio xehatua prestatuko du, egindako azterketa guztiei buruzko informazioa bilduko duena eta etorkizunean segurtasun mailako hobekuntzak edo beharrak detektatzeko balioko duena.

Mantentze-zerbitzuaren baldintzak 3.7.2 - "Enpresa esleipendunak eskainitako mantentze-zerbitzuaren ezaugarriak eta baldintzak" puntuan deskribatzen dira.

3.7.2. - Enpresa esleipendunak eskainitako mantentze-zerbitzuaren ezaugarriak eta baldintzak

3.7.2.1 Mantentze-lana

Egingo diren mantentze lanen helburua lehendik dauden sareek egoki funtziona dezaten lortzea da, ondoren zehazten diren zereginetatik haratago.

Hona hemen ohiko zereginen artean garatu beharrekoak:

1. Ekipo berriak instalatzeko kofigurazioetan laguntzea.
2. Ekipoak berriz konfiguratzea Irungo Udalaren behar berriei erantzuteko.

UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

3. Extreme Networks fabrikatzailearen Netsight Console tresnaren barruko ekipoen inbentarioa, sareko elementu guztiak bilduta eta konfigurazio bereziko atakak argi eta garbi ikusteko moduan.
4. Egiten diren lanei buruzko dokumentazioa aurkeztea.
5. Ekipoetan gertatzen diren gorabeherak konpontzea, eta baita funtzionamendu arazoak ere Informatika Departamentuko teknikarien gorabeheretan denean.
6. Zerbitzuari aholkua eta laguntza ematea alderdi tekniko eta funtzionaletan, Informatika Departamentuko teknikariek zalantza dutenean.

Informatika Departamentuko teknikariek gainbegiratuta lan egingo du enpresa esleipendunak, eta ezin izango du aldaketarik egin arkitekturako osagaiak, armairuak, konfigurazioak eta abar berariaz baimendu gabe, ekoizpen-lanetan eragiten badute. Osagai horietakoren bat aldatu behar izanez gero, Informatika Departamentuak baimendu eta gainbegiratu behar du.

3.7.2.2 Mantentze-kontratuan sartzen diren ekipamendu-motak

Udalaren sareko ekipamenduaren barruan, S4 modeloko switch core zentralaz gain, Extreme Networks ekipo-pila hauek daude, eta horiei mantentze-lan hauek egin beharko zaizkie:

1. **B5 eta X440 switch-ekipamendua duten pilak, Extreme Networks-en zerbitzu batekin estaliak produktuaren bizitza komertzialaren bermearekin,** kosturik gabe eta birjartze-zerbitzua gehienez 10 egunetan emanez.

2. **A2 ekipo bakarreko pilak,** fabrikatzaileak deskatalogatutako ekipoak dira. Irungo Udalak ordezko piezen stocka dauka, matxurarik izanez gero horiekin ordezteko adinakoa. Beraz, **enpresa esleipendunak EZ du esku hartu beharrik.**

3. **Pilatutako A2 batzuk dituzten ekipo-pilak;** fabrikatzaileak deskatalogatutako ekipoak dira. Irungo Udalak ordezko piezen stock bat dauka enpresa esleipendunaren esku, eta, kasu horretan, **bai behar luke A2 ekipoaren konfigurazioa egin eta pilan sartu**. Gaur egun, mota horretako ekipo-pila bakarra dago, eta I. eranskinean dago, "Kostorbe eraikina" izenarekin.

Matxurak konpontzeko Irungo Udalak ordezko pieza hauek ditu:

- 1 x A2H124-48P
- 1 x A2H124-24P
- 3 x A2H124-48

Fabrikatzaileak euskarria emateko dituen ekipoetarako, hau da, X690, X695, B5 eta X440 ekipoetarako, Extreme Networks enpresarekin egindako mantentze-kontratuak Service Product Type (PW NBD AHR) izan behar du, horrela MGBIC moduluen mantentze-lanak oinarrizko ekipoaren euskarri-maila berarekin egon daitezen.
Mantentze-kontratu horrek irauten duen 3 urteetan, bi arrazoi hauetako batengatik aldatzen da udal-sareko switchen ekipamendua:

1. Egungo ekipoak ordezteko Extreme Networks fabrikatzailearen switch berriak erosteagatik

2. Eraikin edo bulego berriak irekitzeko beharrei erantzuteko Extreme Networks fabrikatzailearen ekipo berriak erosteagatik

Enpresa esleipendunak bere gain hartu beharko du ekipamendu berri horren mantentze-lana, baldin eta mantendu beharreko ekipo-kopuruaren igoerak ez badu gainditzen gaur egungo ekipo-kopuruaren % 20a, hauek kontuan hartuta:

- Dauden ordezkoen multzoan sartuko dira ordeztutako ekipoak.
- Ekipo berriek fabrikatzailearen bizitza osorako bermea izango dute.

3.7.2.3 Gorabeheren, kritikotasun-mailen eta erantzun-denboren kudeaketa

Irungo Udalak enpresa esleipendunari jakinarazitako gorabeherak Udal Sarerako duten kritikotasunaren arabera sailkatu eta hiru motatakoak izango dira:

1. Maila: Gehienezko kritikotasuna.

Honako kasu hauek sartzen dira maila honetan:

- Matxura switch core zentralean, zeina kontratazio honen xedea baita, eta bi X690 ekipoko eta bi X695 ekipoko pila batek osatuko du.
- Udal-sareko erabiltzaileek lana behar bezala egitea galarazten duen funtzionamendu txarra edo errendimendu-erorketa detektatzea.
- Matxurak zentro edo azpiegitura kritikoetan, hala nola bulegoetako switchetan, zeintzuk jarduteko duten moduagatik 24x7 funtzionatzen baitute. Udaltzaingoaren eraikina edo kamera-sarea dira kasu horren adibide.
- Matxurak asteburuetan irekitzen diren zentro edo azpiegituretan, hala nola astelehenetik igandera irekitzen diren udal-kiroldegietan edo astelehenetik larunbatera eta azterketa-garaian astelehenetik igandera irekitzen den CBA liburutegian.

Arazoa jakinarazi ondoren, 5 ordu igaro baino lehen, lantalde bat aurkeztu beharko da edo, bestela, arazoa konpontzeko laguntza eman beharko die udal-teknikariei 24x7 ordutegian.

Kontratu honetan, horrelako 2 jarduketa sartuko lirateke urtean. Horrelako jarduketa gehiago egin behar izanez gero, lanen orduko prezioa eskaintzan aurkezten dena izango da, eta baloratu egingo da.

2. maila: Prestasun mugatua.

Matxurak edo funtzionamendu txarrak eraikin edo bulegoren bati bakarrik eragiten dion kasua da, antolakuntzako gainerakoek normaltasunez funtzionatzen dutenean. Lan horiek lan-orduetan egingo dira.

3. maila: Gorabehera arinak. Hobekuntza-eskaera edo aholku-eskaera.

Sarearen funtzionamenduari eta erabiltzaileei eragiten ez dieten akats txikiak edo errendimendu-galera txikiak atzematen badira, egoera horren berri enpresa esleipendunari eman ondoren, 24 ordu baino gutxiagoan, gorabehera jaso izanaren agiria eman beharko du, eta 72 ordu baino gutxiagoan udal-teknikariekin harremanetan jarriko da, eskaerari erantzuteko.

IRUNGO UDALA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Inolaz ere kostu gehigarririk ez du izango enpresa esleipendunaren teknikarien prestasunak.

Lan-ordutegia izango da bulegoen eta beste udal-zerbitzu batzuen funtzionamenduaren ordutegi nagusiak betetzen dituena, hau da, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 19:00etara.

3.7.2.4. Mantentze-zerbitzuaren baldintzak

Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du mantentze-zerbitzua eskaintzeko, fabrikatzaileak eskainitakoaz gain, **"3.7.2.2. Mantentze-kontratuan sartzen diren ekipamendu-motak"** puntuan deskribatutako 1. eta 3. Kasuetan, eta, gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu:

1. Bezeroari arreta emateko telefono-zenbaki bat emango du, gertatzen diren gorabeheren berri emateko. Telefono horren estaldurak gutxienez 9x5 izan behar du 2. eta 3. mailetako gorabeheretarako, eta 24x7 estaldura-telefono bat ere egon behar da 1. mailako gorabeheretarako. Telefono-zenbaki horiek eskaintzan sartu beharko dira.

2. Erositako ekipoetan gorabehera bat gertatzen denean, urruneko edo in situ laguntza eskainiko da. Urruneko laguntzaren erantzun-denbora ez da izango 4 ordu baino gehiagokoa, eta in situ laguntza NBD izan beharko da.

3. Gorabehera bat urruneko laguntzarekin konpontzen ez bada, NBD in situ erantzun beharko zaio.

4. Mantentze-zerbitzuan, pieza kaltetuak ordeztea ere sartuko da, eta baita laneskua eta matxura konpontzeko faktura daitekeen beste edozein kontzeptu ere.

5. Kaltetutako elementua konpontzeko kendu egin behar bada, antzeko ezaugarriak edo ezaugarri hobeak dituen elementu batekin ordeztu beharko da, Irungo Udalarentzat inolako kosturik gabe, ukitutako zerbitzuan lanean jarraitu ahal izateko.

6. Esleipendunaren kontura izango da matxuratutako materiala kentzea eta birjartzea. Antzemandako arazoak konpontzeko, fabrikatzaileak firmwarearen bertsioaren eguneratzeak argitaratzen baditu ekipoetarako edo partxeetarako, Irungo Udalak bertsio edo partxe horiek inolako kosturik gabe instalatzeko eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari. Gainera, mantentze-aldian Extreme Networks fabrikatzaileak kritika gisa ezarritako firmwarearen bertsioen eguneratzeak argitaratzen baditu, enpresa esleipenduna behartuta egongo da mantentze-lan horien xede diren ekipoen firmwarearen bertsioa berrikustera.

Ekipoak bidaltzeko eta jasotzeko gastu guztiak kontratuaren prezioan sartuta daude, eta mantentze-lanetako enpresaren kontura dira.

3.7.2.5 Derrigorrezko lanaldiak

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Arestian adierazitakoa gorabehera, enpresa esleipendunak lanaldi hauek egin beharko ditu mantentze-lanetarako kontratuak irauten duen urte bakoitzean:

- Mantentze-lan zuzentzaileen 2 jardunaldi, 8x5 estaldurarekin eta NBD zerbitzu-mailarekin.
- Prebentziozko mantentze-lanak berrikusteko lanaldi 1, enpresa esleipendunaren lan-orduetan.
- Aurreko lanaldietakoren bat udal-bulegoen ordutegitik kanpo egin behar bada, eta horiek funtzionamendu egokia galarazi ez dadin, udal-bulegoen ordutegitik kanpoko lanaldi bat egin ahal izango da haren ordez, Irungo Udalari inolako kosturik sortu gabe.

Irunen, sinatzen den datan.

Eusebio Hernández
SISTEMETAKO TEKNIKARIA

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA
SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

I. ERANSKINA

Mantentze-lanetan, ondoren banakatuta agertzen diren ekipoak sartuko dira:

- ExtremeNAC SW subscription for 1000 end-systems for 1 Year ExtremeWorks, 3 urtetarako.
- ExtremeCloud IQ Pilot SaaS Subscription and EW SaaS Support for one (1) device (1 year) 3 urtetarako datu-zentroa kudeatzeko.
- Suitch core zentraleko osagaiak, X690 eta X695 modelokoak, kontratazio honetan erosiak.

Udalaren sareko ekipamenduaren barruan, switch core zentralaz gain, honako pila hauek daude konfiguratuta udalaren hainbat eraikin eta bulegotan.

KOKAPENA	UNITATEAK	EKIPOA
Udal Artxiboa	1	A2H124-48P
Artaleku kiroldegia	1	X440-G2 48P 10GE4
Azken Portu kiroldegia	1	A2H124-48P
Amaia KZ	1	X440-G2 24P 10GE4
CBA liburuteko 1. pila	1 1	B5G124-48P2 B5G124-24P2
CBA liburuteko 2. pila	2	B5G124-48P2
Gizarte Ongizate	1 2 1	X440-G2 48T 10GE4 X440-G2 48P 10GE4 X440-G2 24P 10GE4
Bidasoa bizirik	3	X440-G2 48P 10GE4
Udaletxeko 1. Pila, behean	2 1	B5G124-48P2 B5G124-48
Udaletxeko 2. Pila, datu-zentroan	1 1 1	B5G124-48P2 B5G124-48 B5G124-24
Udalaren Wifia	1	B5G124-24P2
Blaia hilerria	1	X440-G2 12P 10GE4
Musika Kontserbatorioa	1	X440-G2 48P 10GE4
Hezkuntza-Gazteria	1	B5G124-24P2
Udal Euskaltegia	1	B5G124-48P2
Euskarako bulegoa	1	A2H124-48P
Uranzu pilotalekua	1	A2H124-48P

IRUNGO UDALA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Udal-haurtzaindegia	1	A2H124-24P
Iraso zentroa	1	A2H124-48P
Irun2020 bulegoa	1	B5G124-48P2
Kostorbe eraikineko 1. pila	3 1 1	A2H124-48 A2H124-48P A2H124-24P
Kostorbe eraikineko 2. pila	1	X440-G2 48P 10GE4
Larramendirena	1	A2H124-24P
Zahar-etxea	1	B5G124-24P2
Oiasso Museoa	1	A2H124-24P
010 bulegoa	1	X440-G2 24P 10GE4
Palmera Montero	1	A2H124-48
Udaltzaingoa	3	X440-G2 48P 10GE4
Udaltzaingoa Mirror	1	A2H124-48P
Diru-bilketako bulegoa	1	X440-G2 24P 10GE4
Udal Egoitza	1	A2H124-48P
HAZ	1 1	B5G124-48P2 B5G124-24P2
Gizarte Ongizate - Kontu-hartzailetza	1	X440-G2 24P 10GE4
Palmera Montero	1	A2H124-48P
San Martzial -Txingudi	1	A2H124-48P
Irunvi bulegoa	1	X440-G2 48P 10GE4
Kamera-sarea	2 1	X440-G2 48P 10GE4 X440-G2 24P 10GE4

II. ERANSKINA

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARÍA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Ekipamendua udal-eraikin eta -bulegoetan dago instalatua, zuntz optikoaren bidez udalaren datu-zentroari lotua, udaletxean (San Juan Arri plaza 1).
Bulego hauetan daude fabrikatzaileak katalogotik kanpo utzi ez dituen ekipamenduak edo A2 switch-pilak, mantentze-kontratu honetan sartuak:

- Udaletxea : San Juan Arri plaza 1
- Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoak : San Martzial karrika 2
- 010 zerbitzuaren bulegoak : Prudencia Arbide 2
- Diru-bilketako bulegoa : Prudencia Arbide 2-behea
- CBA liburutegia : San Juan Arri plaza
- Irun 2020 bulegoa : San Juan Arri plaza 1
- Udal Artxiboa : Pikoketa karrika 1 (Ikust Alaia eraikina)
- Larramendirena eraikina : Karrika Nagusia 43 - Larramendirena etxea
- Euskara : Foruen karrika 2 - 4.a
- Kostorbe eraikina : Iparralde hiribidea z.g. - Kostorbe eraikina
- Udaltzaingoa : Juan Thalamas Labandibar kalea 21
- Gizarte Ongizateko eraikina : Urdanibia plaza 6 (ospitale zaharra)
- Iraso zentroa : Ama Birjina Mirarietakoa z.g.
- Udal Egoitza : Ama Birjina Mirarietakoa z.g.
- Udal-haurtzaindegia : Uztapide bertsolaria 1
- Euskaltegia : Urdanibia plaza 5
- Zahar-etxea : Luis Mariano plaza 1
- Oiasso Museoa : Eskoleta karrika 1
- Musika Kontserbatorioa : Mendibil 17 - M-Luisa etxea
- Blaia hilerria : Blaia ibilbidea 30
- Amaia KZ : Pio XII.a 4 - Lopez Becerra (albokoa)
- Artaleku kiroldegia : Karrika Nagusia 30
- Azken Portu kiroldegia : Juan Thalamas Labandibar kalea 39
- Bidasoa Bizirik : Hendaia kalea 8 - Ducorau jauregia
- Palmera Montero zentro zibikoa : Leandro Agirretxe 1
- Irunvi : Eliza karrika 6 - behea

Kontratu honek irauten duen bitartean, beste eraikin edo bulegoren bat zuntz bidez elkartzen bada, Extreme Networks fabrikatzailearen switchak jarriko dira eta mantentze-kontratu honetan sartuko dira. Gaur egun, badakigu 2022an zentro hau irekiko dela:

- Emakumeen Etxea : Istillaga plaza 8